



LIBURUA

# Jelosia posesiboaz, eta ez maitasunaz



## KONTU PRIBATU BAT

EGILEA: BEPPE FENOGLIO

ITZULTZAILEA:

JOSU ZABALETA KORTABERRIA

KATAKRAK, 2020

### IBAI ATUTXA ORDEÑANA

**K**atakraken oharrean eta Paul Beitia-ren hitzaurrean esango zaigu: *Kontu pribatu bat* ez da soilik gerra-eleberria, maitasun-eleberria ere bada. Eta onartu behar dut, zerbaitekin insistitzen zaidanean automatikoki datorkit sospetxa. Istorioa irakurri eta diot: hau ez da maitasun-eleberria; hau da eleberri bat jelsia toxikoaz eta maskulinitate posesiboaz –agian klase zapalkuntzaren abolizioak ezabatuko ez lukeen genero zapalkuntzaz– diharduena.

*Heart of Darkness*, *Apocalypse now*, *Rambo II*, *Saving Private Ryan*, 1917: ezagutzen duzu jada eleberri hau, agian pelikula forman bada ere. Gerraren batean bidaiari ekiten diote protagonistek eta narrazioek maila kasik alegorikoa

hartzen dute. Kasu honetan, Bigarren Mundu Gerran gaude, Italian, eta Milton partianoak ekingo dio bidaiari. Kurtzen bila baino, Giorgio salbatzera joango da, eta *Kontu pribatu bat* beharrean izan zitekeen *Saving Partisan Giorgio*. Ezagutzen duzu eleberria eta sarri gertatu bezala, interesgarria da arreta jartzea errepikapenetan baino, Fenoglioren eleberriaren diferentzietan.

Ez dago maitasunik eleberrian. Mil-tonek dio Fulviarekin maiteminduta dagoela. Eta? Akzioa akuilatzen duena beste zerbaite da. Protagonistak Giorgio eta Fulviaren arteko harremanaz jakin eta kontrola galtzen du erabat: “Burua lehertzeko zorian daukat” esango du harremana ezin onartuta, jelskor; “Fulvia-

rik gabe ez zen udarik egongo beretzat”, dio posesibo. Maitasunaren arrastoak baino, ideia erromantikoei darien maskulinitate biolentoen tranpak irakurri ditut etengabe pertsonaian.

Argi gelditu dadila: ez naiz ari eleberria ile kontra interpretatzen. Ez behintzat testuaren amaiera kontuan hartuta. Horixe da hain justu, interesgarri egiten duena: ezkerreko gizon iraultzaileen biolentzia erromantikoa irakurgarri egitea. Maitasun erradikalak eta eraldatzaileak elkar eraikitzeke eta elkarrekin eraikitzeke eginbide berriak mahai-gaineratuko baditu, lehenengo jabetu beharko dugu jelsia erromantiko posesiboak dakartzan bortxez; baita gerra garaian ere. ●